

C DOKUMENTUA: URBANIZAZIO ARAUAK

C1 APLIKAZIO ESPARRUA ETA IRIZPIDE OROKORRAK

Arau hauek memoriaren eta hirigintza-araudi orokorraren testuinguru orokorrean interpretatu behar dira, horien asmoa eta helburuak kontuan izanda, eta arau hauen mende jarrita.

Zalantzarik edo zehaztugabetasunik izanez gero, aurretiazko urbanizazioaren eta zerbitzuen zuzkidura handienaren exijentziari egokien erantzungo dion konponbidea nagusituko da.

Dokumentu honetan berariaz araututa ez dagoen guztirako, 2008ko otsailaren 13an behin betiko onartutako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean (8. titulua, urbanizazioaren ordenantza orokorrak) ezarritakoak aginduko du.

Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko beharrezko diseinu-neurri guztiak hartuko dira. Proiektu teknikoek berariazko atal bat izango dute oztopo fisiko eta sentsoari buruz indarrean dagoen legeria nola betetzen den deskribatzeko.

Arau hauek sektorearen esparruan gauzatzen diren urbanizazio-obra guztietarako aplikatuko dira, obrak jasotzen dituen proiektua eta horiek gauzatzen dituzten pertsonak edo erakundeak edozein direla ere.

Hiri-antolamenduaren plan berezi honekin batera edo ondoren, dagokion urbanizazio-proiektua idatziko da antolamendu-planoen arabera. Bertan, espazio publikoaren eraikuntzari eta kalitateari buruzko xehetasun guztiak emango dira. Gainera, espazio publikoaren hiri-kalitatea bermatzen duten ondorengo alderdi guztiak bete beharko dira:

- Indusketa eta lur-mugimendua.
- Bideen, espaloien, bidegorrien, oinezkoentzako bideen eta pasaguneen zoladura, eta seinale horizontalak eta bertikalak.
- Arrisku-sareak.
- Ur beltzak eta euri-urak husteko sareak.
- Ura banatzeko sarea eta sute-ahokak.
- Energia elektrikoa banatzeko sarea.
- Gas naturalaren sarea.
- Telekomunikazioen kanalizazioak.
- Parkeak, lorategiak, eta espazio libreen eta hiri-altzarien egokitzapena.
- Argiteria publikoa.
- Bestelako sareak eta/edo kanalizazioak.

Urbanizazio-proiektuetan, sektoreko hirigintza-zerbitzuen eta inguruneke zerbitzu orokorren arteko lotura ebatzi beharko da, eta azken horiek behar adinako ahalmena dutela egiaztatuko da.

Urbanizazio-proiektua ingurumen-inpaktuari buruzko ebaluazioaren mende jarri beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 1B eranskineko 20. eta 21. epigrafeetan adierazitakoaren arabera. Hortaz, urbanizazio-proiektuak ebaluazio horren emaitzazko xedapenetara egokitu beharko du.

Urbanizazio-proiektua idatzi aurretik azterlan geotekniko bat egingo da. Azterlan hori oinarritzat hartuko da zoruak dimentsionatu, zolatu, drainatu, zimendatu, tutuen gurutzaguneak indartu eta abarretarako konponbide egokiak hartzeko.

Ezarritako hirigintza-baldintzak errespetatuko dira eta hiri-hobekuntza baten arabera sar litekeen edozein aldaketa berariaz justifikatuko da. Aldaketa hori ez da, inolaz ere, interes partikularren mesedetan espazio publikoaren ezaugarrien kalterako izango.

Urbanizazio-proiektuak, kasuak kasu eta hala badagokio, honako zerbitzu hauei eta gauzatu beharreko obrak zehazteko beharrezkoak diren bestelakoei buruzko zehaztapenak bilduko ditu: bide-sarearen eta oinezkoentzako ibilbide edo eremuen zoladura, lorategiak, zuhaitziak, hiri-altzariak, uraren hornidura eta banaketa, saneamendua eta estolderia, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, argiteria publikoa eta telefonia.

Instalazio-sare guztiak lurpean proiektatu beharko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta konpainia hornitzaileen exijentzia guztiak bete beharko dituzte.

C2 LUR BERDINKETAK ETA MUGIMENDUAK

Lur-berdinketak osorik egingo dira espazio publikoari eragiten diotenean eta/edo hura baldintza egokietan uzteko beharrezkoak direnean.

Erabilera publikoko eremuetan lur-berdinketako eta zoladurako obrak egitean, zoladurak trafiko-kargetarako eta klimatologiarako erresistentzia egokia izan behar dutela kontuan hartuko da. Arlo horretako irizpide orokorrei jarraituko zaie, eta, hala, urak saneamendu- eta drainatze-sarera egoki hustu beharko dira, aurki eraikiko diren instalazioak aurreikusiko dira, profil erregularrak izango ditu, eta ibilbideen jarraipena, oinezkoen segurtasuna eta zoladura aurrerago mantentzeko erraza izatea izango da kontuan.

C3 HIRI ALTZARIEI BURUZKO ARAUAK

Hiri-altzariei eta elementu osagarriei dagokienez, Zarauzko Udalak eta hiri-antolamenduaren plan berezi hau egin duen taldeak berariaz baimendu beharko dituzte.

Material guztiak goi-mailako kalitatekoak eta itsas inguruneari egokituak izango dira. Elementuen diseinua bat etorriko da haien kokaleku izango den espazio naturalaren nolakotasunarekin.

Altzari guztiek bete egin beharko dute hiri-inguruneen, espazio publikoen eraikuntzen, eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoetan xedatutakoa (26/2000 Dekretua, 2000ko apirilaren 11koa).

Urbanizazio-proiektuak hiri-altzarien beharrezko elementu guztiak bilduko ditu (hala nola, bankuak, paperontziak, iturriak, metalezko mutiloiak, zakar-edukiontzietarako gontzak, bideen seinale horizontalak eta bertikalak, kale-izenetarako zutoinak, haurrentzako jolas eta parkeetarako altzariak, etab.), zona bakoitzean aurreikusitako erabileretarako kopuru eta kokaleku egokian.

Elementuek ezaugarri egokiak izango dituzte beharrezko kontserbazio- eta mantentze-irizpideak betetzeko. Hala, metalezko elementu guztiak galvanizatuta edo beroan pintatuta

eta zurezko elementuak tindatuta edo pintatuta proiektatuko dira. Metalezko elementuak altzairu herdoilgaitzezkoak, edo altzairu plastifikatuzkoak edo itsas ingurunetik babesteko korrosioaren aurka tratatutako burdinurtuzkoak ere izan daitezke.

C1.1

C1.2 C3.1 BANKUAK ETA MAHAIK

Paseatu eta egoteko zona libreetan, eta bideetan bankuak jarriko dira.

Hiri-parkearen eta plazaren zonan, bankuak eta mahaiak altzari-elementu independenteak izan daitezke edota, aitzitik, egoteko espazioak eta estaldura-elementuak mugatzen dituzten horma txikietan integratu ahal izango dira.

C1.3 C3.2 ARGIZTATZEA

Eremuetako argiztatze-mailak, erabileraren arabera, C8.9 atalean ezarritakoak izango dira. Nolanahi ere, argiztatze-mailei dagokionez, Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 8.5.01 artikuluan (espazio publikoen argiztatzea) finkatutakoa bete beharko da. Luminariak bat etorri beharko dute enpresa-parkearen eraikuntza-irudi orokorrarekin, eta zonaren garapenak sorrarazitako paisaia-ingurunea osatu beharko dute.

Luminarien altuerak eta tipologia zonaren multzoan haiek duten kokapenaren arabera ezarriko dira.

- Parke edo lorategiko zona publikoak: gehienez 6 m-ko altuerako farolak, balizak lurzoruan, paretetan edo bananduta.
- Bideetako zona publikoak: gehienez 12 m-ko altuerako farolak.
- Terraza edo plazako zona pribatuak: balizak lurzoruan, paretetan edo bananduta. Zona horietan, luminariak bereziagoak izan daitezke, bertako eraikuntzari lotutako inguruneak baitira.

C1.4 C3.3 SEINALEZTAPENA

Ibilgailuentzako bideetako seinaleak seinaleztapen-eredu ofizialetara egokitu beharko dira. Nolanahi ere, seinaleztapenari dagokionez, ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailearen bidez onartutako Gipuzkoako ERrepide eta Bideen Foru Arauaren testu bategineko artikulua hauek bete beharko dira: 37.a, seinaleztapenari buruzko; 48.a, informazio-seinaleei buruzkoa; eta 59.a, kartelei, idazkunei eta errotuluei buruzkoa.

Urbanizazio-proiektuan ibilgailuen trafikoa aztertuko da eta, Udalarekin ados jarrita, seinaleztapen bertikaleko eta horizontaleko elementuak proiektatuko dira.

Udal-zerbitzuek kaleen izenak zein lekutan jarri beharko diren adieraziko dute, eta eraikin-zenbakiaren tamaina, forma eta kokalekua onartu beharko dute.

Parkeko seinaleak Zarautzko Industrialdea, SAREN jarraibideak kontuan izanda finkatuko dira.

C1.5 C3.4 ZABOR EDUKIONTZIAK ETA PAPERONTZIAK

Zona barruko industria-enpresek euren hondakinak kudeatu beharko dituzte, eta kokatzen direneko eraikuntzaren barruan dagozkion edukiontzia izango dituzte. Era berean, hirugarren sektoreko enpresen erkidegoek hondakin-kudeatzaileak kontratatuko dituzte eraikin bakoitzerako. Horiek eraikinaren barruan kokatuko dira sestraperan.

Oinezkoentzako ibilbide eta espaloi guztietan paperontziak ipiniko dira: oinezkoentzako ibilbideko 100 m-ko bana gutxienez.

C1.6 C3.5 ITURRIAK

Planoetako antolaeraren arabera, parkearen linea estetikoarekin bat etorriko diren burdinurtuzko iturriak jarriko dira.

C1.7 C3.6 BIZIKLETEN APARKALEKUA

Bizikleta-zirkulazioa sustatzeko asmoz, zona osoan, sestra gainean eraikitako 450 m²-tik behin 1 bizikleta-aparkaleku aurreikusi beharko da nahitaez. Bizikletak aparkatzeko hiri-altzariak bat etorriko dira parkearen linea estetikoarekin.

C1.8 C3.7 MARKESINAK

Markesinek bat etorri beharko dute enpresa-parkearen eraikuntza-irudi orokorrarekin, eta zonaren garapenean sortutako paisaia osatu beharko dute. Udalaren irizpideen arabera, autobus-geltoki bat eta dagokion markesina jarriko dira.

C1.9 C3.8 ZUBIAK

Zubietan, beharrezko argia gainditu ahal izateko, palafito moduko eraikuntza arinaren ideia errespetatuko duten egiturak, formak eta materialak erabiliko dira.

C4 BIDE SAREARI BURUZKO ARAUAK

Oro har, bide-sarearen geometriari dagokionez, Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 8.2.03 artikuluan (ibilgailuentzako bideak eta galtzadak) ezarritako gutxienekoak bete beharko dira.

Ezaugarri geometrikoak antolamendu-planetan finkatutakoak izango dira.

Bide-sarearen trazadura zertxobait bat aldatu ahal izango da azterlan xehatuagoaren bidez (adibidez, urbanizazio-proiektu baten bidez), baldin eta eraikuntzen babes-zonak eta separazioak murrizten ez badira.

Urbanizazioko proiektuaren edo proiektuen bidez egindako aparkalekuen diseinuak ziurtatu beharko du eremu osoan sestra gainean eraikitako 300 m²-tik behin gutxienez 1 aparkaleku egitea. Gainera, aparkalekuen % 2,5ek bete egin beharko dituzte hiri-inguruneen, espazio

publikoen eraikuntzen, eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoetan erabiltzaile minusbaliatuentzako ezarritako baldintzak (26/2000 Dekretua, 2000ko apirilaren 11koa). Lursail pribatuen barruan kokatutako aparkalekuetarako, erabilera publikoko zortasuna ezarri da.

Ibilgailuen trafikoak abiadura handia har dezakeen zonetan, arrapala edo pasagune goratuak ipiniko dira, behar bezala seinaleztatuta, ibilgailuen abiadura moteltzeko eta, hala, bertakoen segurtasuna eta lasaitasuna babesteko.

Urbanizazio-proiektuan egin den bizikleta-erreiaren diseinurako, xedapen orokortzat ezartzen da noranzko bikoak izatea eta gutxienez 3 metroko zabalera edukitzea. Gainera, udalerraren gainerakoan dauden bizikleta-bideen koloreak eta materialak errespetatuko dira.

Oinezkoentzako ibilbide guztiek irisgarritasuna sustatzeari buruzko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa bete beharko dute.

Urbanizazio-proiektuak lursail pribatuen arteko oinezkoentzako sare publikoaren jarraitutasuna ziurtatu beharko du, garajeetan sartzeko behar ez diren mozketak saihestuta.

C1.10 C4.1 ZOLADURAK

Zoladura-eredu bat edo beste erabiltzeak dagozkiOn egitura-sekzioak finkatzea ekarriko du. Horrela, aurreikusten den trafikoaren arabera, bide bakoitzaren funtzionamendu zuzena bermatuko da.

Galtzaden eta espaloien egitura-sekzioek errepideei buruzko aginduan jasotakoa beteko dute.

Espazio publikoan zolatutako elementuetan erabili beharreko materialak paisaiaren itxura eta ezaugarrietara egokituko dira. Hona materialak:

- Espaloiak: ertz leunduko zintarriak, eta terrazo ez labaingarriak, gutxienez bi koloretakoak, hormigoizko zolataren eta trinkotutako zagorrezko oinarri pikordunaren gainean. Oinezkoentzako pasaguneekin bat etorritik, zintarriek 1,50 m-ko luzerako malda-beheragunea izan beharko dute gutxienez, edota espaloien sestra berean geratu beharko dute, galtzadaren sestraren eta oinezkoentzako pasagune goratuaren sestraren artean gehienez % 8ko malda utzita, espaloien zoladura eta galtzadarena lotzearren. Garajeetarako sarbideak aurrefabrikatutako zintarri beheratuen bidez ebatziko dira.
- Errodadura-zoladurak: zagorrezko 40 cm-ko oinarria, berotan jarritako asfalto-aglomeratuzko bi geruzekin (gutxienez 7 cm kare-harri eta gutxienez 5 cm arido ofitiko trinko –D-12 motakoa–, itsaspen eta inprimazioko dagozkien garztaekin).
- Espazio libreetako terrazak eta oinezkoentzako bideak: hormigoizko zolata tratatuak, galtzada-harri harrizkoak edo artifizialak, harrizko lauzak, terrazo ez labaingarriak, hormigoi inprimatuak, etab., zolatari eta hormigoitari buruzko Udalaren irizpide teknikoaren arabera.
- Espaloi estuko zonetan edota minusbaliatuentzako pasaguneen inguruetan kokatutako txorkoek pieza batzuk izango dituzte txorkoaren lurraren eta espaloien artean koskarik sor ez dadin.

C5 LORATEGIEI/BERDEGUNEI BURUZKO ARAUAK

Urbanizazio-proiektuak lorategiei eta paisajismoari buruzko azterlan bat bilduko du. Landaketak zonarako espezie egokiekin egingo dira. Proiektu horrek Lurzoruaren Legearen 79.2.d atalean exijitutakoa bete beharko du, hirugarren sektoreko lurzoruaren eraikitako 100 m²-tik behin zuhaitz bana landatzeari eta/edo kontserbatzeari dagokionez.

Berdegunen eta lorategien zona bertako zuhaitz, belar eta zuhaixka-espezieekin tratatuko da. Kanalei dagokien hiri-parkearen zona ur gaziz bete daiteke. Hortaz, zona horretarako lorategi eta urbanizazioko proiektuetan baldintzatzaile hori kontuan hartu beharko da.

Urbanizazio-proiektuan, lorategiak eta paisajismoa aparteko atalean bilduko dira.

Bertan, puntu hauek jasoko dira:

- Parkea trazadura sinplekoa izango da. Landarediak parkearen irudia nabarmendu behar du bere ingurunean. Mantentze-lan txikia beharko da. Espezie desberdinetako zuhaitziak osatuko dira, hosto erorkorreko eta iraunkorreko zuhaitzak nahastuta, eta lore ugariarekin.
- Bideek urbanizazio-proiektuan jasotako diseinua izango dute: asfalto-aglomeratu pigmentatua, hormigoi inprimatuak, galtzada-harri edo lauza harrizkoak edo artifizialak. Arrapaletan, zubietan eta pasaguneetan, palafito moduko eraikuntza arinaren ideia errespetatuko duten egiturak, formak eta materialak erabiliko dira.
- Egungo bidearekiko paralelo igaroko den parke linealaren trazadura diseinu eta landaredi egokikoa izango da. Zuhaitzak tamaina ertain eta handikoak izan daitezke, trinkoak eta bertako espezieetakoak.
- Espaloietako zuhaitzak tamaina ertain eta txikikoak izango dira, eta ilara nahastuetan egon daitezke ala ez. Neurri batean loredunak izango dira.
- Berdeguneak pertsonen igarotzea jasango duten hazi soropilduekin proiektatuko dira. Hedadura txikiko belar-sailik ez da diseinatuko arrazoi funtzionalengatik beharrezkoa ez denean.
- Beharrezkoa den lekuetan, ureztatze automatizatua erabiliko da, ihinztigailu eta hedagailuen zirkuituen bidez, elektrobalbulekin eta tantakako programagailuekin, beharrezkoa izango balitz.
- Beharrezkoa denean, zuhaitzen inguruan babesak jarriko dira, kalterik jasan dezaketela aurreikusten den tokietan.
- Espaloietan, enborrharen perimetroa 14 cm eta 16 cm artekoa izango da (sustrai-lurretik 1 m-ra neurtuta) berdeguneetan. Zuhaitzek gutxienez 2,20 m-ko altuera izango dute eta mintegian gutxienez 7 urtez zainduak izango dira.
- Behar duten zuhaitz guztietan zurkaintzak jarriko dira.

- Kaleetan eta plazetan, irizpide orokor gisa, landaketa-distantzia 6-8 m ingurukoa izango da, tamaina txikiko eta/edo ertaineko espezieen lerrokaduretan.
- Urbanizazio-obretan, landare-lurraren mantuari eutsi beharko zaio eta, beharrezkoa bada, hura gorde egingo da obrak egin eta gero berdeguneetan zabaltzeko.
- Lorategi publikoetan, urbanizazio-obratzat hartuko da landare-lurra, lurrustel organikoa, harea eta ongarria gaineratzea, eta lehen mozketa egitea.

C6. ESPAZIO LIBREEI BURUZKO ARAUAK

Oro har, urbanizazioko proiektuan edo proiektuetan bete egin beharko da hiri-inguruneen, espazio publikoen eraikuntzen, eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoetan xedatutakoa (26/2000 Dekretua, 2000ko apirilaren 11koa).

C7. LURSAILEN ITXIERAK

Lursail pribatuen itxierak ezin izango dira hesien edo hormen bidez egin, nahiz eta gardenak izan.

C8. ZERBITZU AZPIEGITUREI BURUZKO ARAUAK

Zerbitzu-azpiegituren proiektuek Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 8. tituluaren (urbanizazioaren ordenantza orokorrak) ezarritako arauak bete beharko dituzte.

Eraikinak hartzera zuzendutako lursail pribatuetan sestrapeko pasabide-zortasuna ezartzen da, artikulua honetan adierazten diren azpiegitura-sareak kokatu ahal izateko.

Hiri-antolamenduaren plan berezi honetako urbanizaziorako, honako azpiegitura-sare hauek egin beharko dira:

- Hornidura- eta saneamendu-sarea.
- Sute- eta ureztatze-ahoen sarea
- Euri-uren eta ur beltzen estolderia.
- Energia elektrikoa.
- Gas-banaketa.
- Telefonía eta telekomunikazioak.
- Argiteria publikoa.

Antolamendu-planoetan adierazitako azpiegitura-sareen trazadurak eta ezaugarriak orientagarriak dira, eta plan bereziaren bideragarritasuna eta haren urbanizazio-maila ezartzea dute helburu.

Beraz, urbanizazioko proiektuan edo proiektuetan haien trazadurak egokitu ahal izango dira, ordenantza hauetan ezarritako erabilerei buruzko araudia beteta. Horrek ez du ekarriko plan berezi hau aldatzerik.

C1.11 C8.1 HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREA

Uraren hornidura eta banaketari, eta saneamendu-sareei dagokienez (bereizleak izango dira), Mankomunitatearen berariazko araudian jasotako irizpideak eta baldintzak beteko dira. Hornidura- eta saneamendu-sarearen diseinuan udal-ordenantza hauek aplikatu beharko dira:

Hodi biltzailera isurtzeko Zarauzko Udalaren araudia (2005eko martxoaren 10eko 47. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Zarauzko udalerrian uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen udal-ordenantza (2004ko apirilaren 23ko GAOn argitaratua).

C1.12 C8.2 UREZTATZE ETA SUTE AHOEN SAREA

Ureztatze-ahoak kaleetan eta lorategi-aldeetan jarriko, mahukak lotu ahal izateko. Behar-beharrezkoak baizik ez dira proiektatuko. Lorategietan, berdeguneetan eta pasealekuen inguruetan jarriko dira. Sute-ahoak homologatuak eta oinarri hariztatudunak izango dira. Hodia "T" erako pieza baten bidez adarkatuko da.

Berdeguneetan ihintzaturako edo tantakako ureztatze-sistemak erabiliko dira, biak ere automatizatuak. Ureztatze adarrak bere kontagailua izango du, eta behar adinako diametroa, zenbat aho edo ihintztagailu jarri behar diren eta aldi berean zenbat erabiliko diren.

Jabari eta erabilera publikoko eremuetan, ingurunearen baldintzen arabera sute-ahoak jarriko dira, suteen kontrako babes neurriekin bat.

Sute- eta ureztatze-ahoen sareak jabari publikoko eta erabilera publikoko edozein puntu hartuko du, zerbitzu-bidean eta parkean ere. Sute-ahoak gutxienez 200 m-tik behin jarriko dira, eta ureztatze-ahoak 50 m-tik behin.

C1.13 C8.3 ENERGIA ELEKTRIKOAREN SAREA

Energia elektrikoa hornitzeko sarea indarrean dauden araudi elektroteknikoetara eta honako arau hauetara lotuta egongo da: NTE-IEB (behe-tentsioa), NTE-IER (kanpoko sarea) eta NTE-IET (transformazio-zentroak).

Transformazio-zentroek egokitasun-baldintzak zehatz-mehatz beteko dituzte, babesari, isolamenduei, estankotasunari, intsonorizazioari, zaratei, bibrazioei, estolderia-sarera zuzenean drainatzeari, etab. dagokienez.

Dokumentazio grafikoan jasotako zona publikoetan lurperatuta egongo dira.

Urbanizazio-proiektuan, konpainia hornitzailearekin batera, erdi-tentsioko sarea oinezkoentzako zubi berriaren azpitik pasatzeko aukera aztertuko da, suhiltzaileen eraikina inguratu beharrean. Hala, dauden urbanizazioetan zangak irekitzea saihestuko da. Kontuan izan behar da ezin dela Abendaño erreka-errekastoaren huste-ahalmena murriztu, oinezkoentzako zubiaren diseinuak duen arintasunari kalterik egin gabe.

C1.14 C8.4 GAS SAREA

Gas-erregaiak banatzeko eta erabiltzeko araudi teknikoa eta horren ICG01/11 jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituen uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua ez ezik, aplikatzekoa den araudi tekniko guztia eta konpainia hornitzailearen arau partikularrak beteko dira.

C1.15 C8.5 TELEFONOEN ETA TELEKOMUNIKAZIOEN SAREA

Urbanizazio-proiektuan, lurpean antolatutako kable-sare baten bitartez telefonia, datu, irrati eta telebistako seinaleak banatzeko hodiak ezartzea aurreikusiko da. Hodi kopurua behar adinakoa izango da uneko beharrak eta gerokoak betetzeko, etorkizuneko garapenak hornitzeko sarean zabalkuntzak egin ahal izateko. Sarrerako kutxetatik eraikinen sarrera orokorreko punturaino doan kanalizazioak gutxienez 8 hodi izango ditu.

Instalazioak konpainia hornitzaileek emandako argibideen arabera egingo dira, unean indarrean dauden berariazko arauari jarraituz.

C1.16 C8.6 ARGITERIA PUBLIKOAREN SAREA

Argiteria publikoa egiteko, bete egin beharko dira behe-tentsioari buruzko indarreko araudi elektroteknikoa, 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua, eta kanpoko argiteriari buruzko berariazko araudian jasotako diseinu- eta kalitate-irizpideak.

Urbanizazio-proiektuan, sarearen osagai guztiak zehatz-mehatz jasotzeaz gain, funtzionamendu- eta mantentze-sistema argituko dute (abioa eta piztea, potentziak, argizatze-mailak, etab.).

Fluxuaren erregulagailuak/egonkorgailuak nahitaez instalatu behar dira, eta Udalak horiek berariaz baimendu beharko ditu. Lanparak presio handiko sodio-lurruneoak, kolore zuzenduko merkurio-lurruneoak, metalezko halogenuroetakoak edo sodio zurikoak izango dira.

Argizatze-berrikuntza teknikoak erabiltzea baimenduko da, baldin eta ezaugarri kromatikoekin errendimendu egokia ematen badute. Babesa ziurtatzearen, zutabe bertikalen inguruan metalezko elementuetako defentsak jarriko dira, haiek kalterik jasan dezaketela aurreikusten den tokietan.

Atmosferan “argi-kutsadurarik” sorraraziko ez duten luminariak erabiliko dira. Lurrean sartutako luminariak, argia gorantz ematen dutenak, ez dira baimentzen.

Gutxienezko argizatze-mailak honako hauek izango dira: kaleetan 30 lux, % 50eko uniformetasunarekin; eta parkeetan 20 lux, % 25eko uniformetasunarekin.